

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2024ko otsaila

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak %3,4 gutxitu dira 2024ko otsailean, eta gualdiak %0,7

Apartamentu turistikoetan sarrerak %22,9 igo ziren eta gualdiak %5,4; batez besteko egonaldia 4 egunekoa izan zen

Eustatek landutako datuen arabera, **2024ko otsailean** %3,4 jaitsi da Euskal AEko **landa-ostatueta** sarrera-kopurua, aurreko urteko hil beraren aldean. Urte arteko jaitsiera honekin, otsaileko sarrera guztiak 5.836 izan dira. Gualdien kopurua, bestalde, %0,7 jaitsi da urte artean 2024ko otsailean, eta 12.196 izan dira hil osoan.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Otsaila 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2024/02	m/m-12 (%)	2024/02	m/m-12 (%)	2024/02	2023/02	2024/02	p.p. *	2024/02	p.p. *
EUSKAL AE	5.836	-3,4	12.196	-0,7	2,09	2,03	12,9	0,5	16,0	0,7
Estatukoak	5.110	-3,1	10.204	-3,6	2,00	2,01	-	-	-	-
Atzeritarrak	726	-5,2	1.992	17,0	2,74	2,22	-	-	-	-
Araba/Álava	893	-3,1	1.704	-10,3	1,91	2,06	7,2	-0,4	9,3	0,0
Estatukoak	754	-12,7	1.255	-29,4	1,66	2,06	-	-	-	-
Atzeritarrak	139	139,7	449	265,0	3,23	2,12	-	-	-	-
Bizkaia	1.355	-21,5	2.660	-28,4	1,96	2,15	9,9	-3,6	12,7	-4,9
Estatukoak	1.234	-22,2	2.455	-28,8	1,99	2,17	-	-	-	-
Atzeritarrak	121	-14,2	205	-22,6	1,69	1,88	-	-	-	-
Gipuzkoa	3.588	5,8	7.832	17,4	2,18	1,97	17,9	3,5	21,8	4,5
Estatukoak	3.122	10,6	6.494	21,2	2,08	1,90	-	-	-	-
Atzeritarrak	466	-17,8	1.338	1,8	2,87	2,32	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Marboaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko landa-ostatueta 2024ko otsailean erregistratutako sarreraren %87,6 estatukoak izan dira, baina aurreko urteko hil beraren aldean %3,1 jaitsi dira. Estatu-jatorriko gualdien kopurua %3,6 jaitsi da urte arteko terminoetan, eta 10.204 dira guztira.

Urte arteko jaitsiera %3,1ekoa izan da Araban eta %21,5ekoa Bizkaian; Gipuzkoan, berriz, %5,8 igo dira sarrerak. Ostatu-gauai dagokienez, Araban %10,3 eta Bizkaian %28,4 jaitsi dira, 1.704 eta 2.660, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, gualdiek %17,4 egin dute gora 2023ko otsailaren aldean, eta 7.832 gualdi erregistratu dira guztira.

Mota horretako establezimenduetan, batez besteko egonaldia 2,09 egunekoa izan da 2024ko otsailean Euskal AEn, 2023ko hilabete berean ikusitako 2,03 eguneko batez besteko egonaldia baino handiagoa. Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimenduetan batez beste ematen duten egun-kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn egiten duten egonaldi osoari.

Plazakako eta gelakako betetze-mailek ehuneko 0,5 eta 0,7 puntuko igoera izan dute urte artean, hurrenez hurren. Plazakako betetze-maila %12,9koa izan da, eta gelakako betetze-maila %16,0koa.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2024ko otsailean 9.885 sarrera izan dira guztira, eta, ondorioz, 39.553 gaualdi izan dira. Aurreko urteko otsailaren aldean, sarrerak %22,9 gehitu dira eta gaualdiak %5,4.

Apartamentu turistiko esaten zaio bloke edo multzo modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten pean eskainitako ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak**, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Otsaila 2024

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2024/02	m/m-12 (%)	2024/02	m/m-12 (%)	2024/02	2023/02	2024/02	p.p. *	2024/02	p.p. *
EUSKAL AE	9.885	22,9	39.553	5,4	4,00	4,66	30,3	-1,3	58,5	-1,7
Estatukoak	6.984	16,9	26.653	0,9	3,82	4,42	-	-	-	-
Atzerritarrak	2.901	40,2	12.901	16,2	4,45	5,36	-	-	-	-
Araba/Álava	549	-29,6	7.072	-9,5	12,89	10,03	23,8	-3,7	72,3	0,8
Estatukoak	514	-27,7	4.759	-20,2	9,25	8,38	-	-	-	-
Atzerritarrak	34	-49,5	2.312	24,5	29,00	27,19	-	-	-	-
Bizkaia	6.981	34,9	15.804	14,7	2,26	2,66	27,2	-0,6	37,9	-3,0
Estatukoak	4.821	25,8	10.460	6,2	2,17	2,57	-	-	-	-
Atzerritarrak	2.160	60,7	5.345	36,0	2,47	2,92	-	-	-	-
Gipuzkoa	2.355	12,6	16.677	4,7	7,08	7,61	38,8	-0,2	73,6	0,4
Estatukoak	1.649	15,0	11.434	7,8	6,93	7,40	-	-	-	-
Atzerritarrak	706	7,4	5.244	-1,4	7,43	8,09	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Marboaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzailleen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien %29,3 eta gaualdien %32,6 atzerritar jatorriko bisitariei dagokie, urte arteko %40,2ko eta %16,2ko igoerak izan ondoren, hurrenez hurren.

Mota horretako establezimenduetan batez besteko egonaldia 4,00 egunekoa izan da 2024ko otsailean, 2023ko otsailean izandakoa (4,66 egun) baino txikiagoa.

Lurralde historikoei dagokienez, batez besteko egonaldia 2,26 egunekoa izan da Bizkaian 2024ko otsailean, 7,08koa Gipuzkoan eta 12,89koa Araban.

Plazen okupazio-maila %30,3ra iritsi da Euskal AEn, ehuneko 1,3 puntu jaitsi baita 2023ko otsailaren aldean. Apartamentu bakoitzeko okupazio-maila, ehuneko 1,7 puntu jaitsi ondoren, %58,5ekoa izan da.

Aterpetxe turistikoetan, 2024ko otsailean, sarrerak eta gualdiak 8.115 eta 16.973 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko otsailaren aldean, guztirako horiek %3,6ko jaitsiera ekarri dute sarreraren kasuan, eta %4,6ko igoera gualdien kasuan.

Batez besteko egonaldia 2,09 egunekoa izan da, eta 2023ko otsailean 1,93 egunekoa. Betetze-maila %21,0koa izan da, aurreko urteko hil berean baino 2,3 puntu txikiagoa.

Informazio-oharra

2024ko otsailean, landa-ostatuaren erantzun tasa **%95,8koa** izan da, apartamentu turistikoena **%92,0koa** eta aterpetxe turistikoena **%88,3koa**.

Eustatek egindako ahalegina eskertu die inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: Tlf: 945 01 75 62